

OCW

IKASTEKO MATERIALAK

ORIENTAZIOA, DIAGNOSIA ETA ESKU HARTZEA HEZKUNTZAN

5. GAIA. ESKU HARTZEA HEZKUNTZAN

5.1. Orientazio-ereduak hezkuntza-orientazioan

5.2. Zenbait webgune interesgarri

5.3. Erreferentzia bibliografikoak

IKASKETA-EMAITZAK:

Irakasgai honen amaieran, ikasleak:

- 1. Hezkuntza zein ereduren bidez orientatzen den jakingo du**
- 2. Zenbait webgune ezagutuko ditu, Ikasteko Zailtasun Espezifikoetan esku hartzeko**

2.1. Orientazio-ereduak hezkuntza-orientazioan

Lledó egilearen arabera [1], ereduak, orientazioaren errealitatea sinplifikatzeko sortutako konstruktua litzateke eta esku hartze eta estrategia zehatzen bidez, hain konplexua den praktika orientatzailea samurragoa egiten du. Izan ere, ikastetxe batean orientatzeak, plangintza sistematiko bat egitea suposatzen du eta argitu beharra egoten da zer egin behar duten orientazio funtzioetan dabiltzanek. Azken batean, orientazioaren eredu egoki bat izatea, berme ona da une bakoitzean dauden beharrei erantzuten jakiteko. Honela, eskolan zein eredu erabiliko den/diren zehaztea eta zereginetan lehentasunak jartzea garrantzitsua da, orientazioan eskaera ugariak eta funtzio anitzak egoten direlako eta testuingurua konplexua delako.

Orientazioan jarduteko zenbait eredu erabiltzen dira, hala nola, *counseling* ereduak, kontsulta ereduak, programen ereduak eta eredu teknologikoak.

Counseling ereduak

Askotariko izenak ditu, hala nola, eredu klinikoak, aholkularitzaren ereduak, aholkularitza zuzenaren ereduak eta esku hartze zuzen individualizatua. Grañeras & Parras egileen [2] arabera, *counseling*aren oinarritzeko helburua, subjektuaren behar pertsonalei, hezkuntza alorrekoiei zein sozio-profesionalei erantzutea da. Ituarteren [3] arabera, eredu honen bidez modu individualizatuan esku hartzen da, hezkuntzaren edo terapiaren bidez. Máiquez eta Capoterren [4] arabera, eredu hau individualizatua da, diagnostikoan eta tratamenduan oinarrituta dago eta teknika nagusia elkarrizketa da. Zenbait ikuspegi daude eredu honen barruan, hala nola, konduktista, eraikitzailea, e.a. Elkarrizketaren teknika, era berean, zenbait estrategiekin osatzen da, hala nola Rogers egilearen [5] islada edo izpilu teknikarekin, ez hitzezkoa den *feedback*arekin, baldintzagabeko onarpen positiboarekin, e.a.

Orientatzaileari dagokionez [2], honek, artatzen duen subjektuarekiko zenbait jarrera erakutsi behar ditu, hala nola, onarpena, ulermena eta zintzotasuna. Onarpenak esan nahi du subjektua edo ikaslea den bezala onartu behar dela. Ulermenak esan nahi du, enpatiaren bidez, orientatzailea bestearen lekuan jartzeko gai izan behar dela. Zintzotasunak esan nahi du, orientatzaileak bere burua modu autentikoan aurkeztu behar duela.

*Counseling*aren esku hartze eremuak zabalduz joan dira. *American School Counselor Association* (ASCA) [6] lau esku hartze mota proposatzen ditu: arazo akademikoak, arazo pertsonal, familiarekin arazoak eta pertsona arteko arazoak eremuetan egindako esku hartzeak.

Counselinga aurrera eramateko aldi batzuk zehazten dituzte zenbait autorek, hauexek [2]:

- Hasierako aldia: laguntza-harremana ematen da
- Diagnostiko aldia: arazoa diagnostikatzen da eta informazioa biltzen da estrategien eta tekniken bidez
- Esku hartzearen diseinu aldia: elkarrizketaren bidez aurrera eramaten da
- Ebaluazioaren aldia: esku hartzearen ebaluazioa eta norbanakoaren garapena aztertzen den aldia.

[2] Eredu honek bere alde onak eta ez hain onak ditu orientazioaren esparruan. Batetik, orientazioa soilik profesional batean zentratzeak pasibotasuna sorrarazi dezake orientazioan parte hartu behar duten profesionalen artean. Bestetik, bakarka egiten da lan eta taldea edo testuingurua landu gabe gelditu daiteke. Muga hauengatik zenbait autoreen ustetan eredu hori ez da egokiena hezkuntza mundurako eta beste batzuentzat berriz, nahiz eta muga horiek egon, *counseling* eredia beti izango da erabilgarria orientazioan.

Kontsulta eredia

[7] Aholkularitza ere deitua, ingelesez *consultation* hitza erabiltzen da. Zeharkako esku hartze bat da, zeinetan orientazioko profesional batek irakasle-taldearekin edo familiarekin kolaboratzen duen. Honela, jarraibide batzuk segituz, irakasle bat/batzuk, familiak e.a. esku hartzen dute zuzenean ikasleriarekin. Azken hartzailea ikaslea da beti. Elkarlaneko kontsultetan, aholkulariaren eta irakasleen/familiaren (erabiltzaileak) arteko ardura partekatua izaten da: biek elkarrekin aztertzen dute testuingurua, adosten dituzte helburuak, garatzen dute ekintza-plan bat eta ebaluatzen dute.

Programa eredia

Parras eta Grañeras egileen arabera [2], ikasle guztiak orientatzeko eta eskolara egokitze asmoarekin sortu zen eredu hau 70. hamarkadan Estatu Batuetan eta 80. hamarkadan iritsi zen Espainiar Estatura. Eredu honi esker, orientazioa aktiboagoa, zabalagoa eta konplexuagoa bihurtu izan da; honela, eredu honetan ikasleria guztia aintzat hartu izan da eta ikasleen garapenarekin loturik planteatu da, ez soilik arazoak dituen ikasleriarekin. Eredu honen bidez, orientazioa, banakako zerbitzua izatetik denon beharra izatera igaro da.

Vélaz de Medrano egileak [2. dokumentuan aipatua] ematen duen definizioaren arabera, programa eredia hau xe litzateke: "Sistema que fundamenta, sistematiza y ordena la intervención psicopedagógica comprensiva orientada a priorizar y satisfacer las necesidades de desarrollo o de asesoramiento detectadas en los distintos destinatarios de dicha intervención".

Programek bereizgarri hauek dituzte [2]:

- Programa eredia zentroaren beharretara egokitzen da.

- Ikasle taldearen beharrak hartzen dira kontuan.
- Ikaslea prozesuaren eragile aktiboa da, beste profesional guztien parte-hartze aktiboa ere eskatzen duelarik.
- Komunitatearekin sare-lana bultzatzen da nahiz eta ondoren, esku hartzea ikasgelan bertan gauzatzen den.
- Esku hartzearen izaera aurre-hartzekoa edo garapeneko da, terapeutikoa baino gehiago.
- Esku hartzea helburuka egiten da, helburu horiek betetzeko zenbait ekintza ezartzen direlarik.
- Planteatzen diren ekintzak bi motatako edukietan oinarritzen dira: batzuk curriculumeko edukietan eta beste batzuk esperientzia pertsonaletan.
- Ebaluazio jarraitua egiten da.

Ikastetxeko curriculumean orientazioko programak txertatzeko bi aukera egon ohi dira [2]: alde batetik, orientatzailearen laguntzaren bidez ikasketa gaietan sartzea, eta bestalde, orientazioaren inguruko curriculumak sortzea. Lehenengo aukera, aberasgarria bada ere, praktikan irakaslearengan gelditzen da arduraren gehiena. Ohikoena, ikastetxeetako hezkuntza proiektuan programa zehatzak sartzea izaten da, orientatzaileak irakasleriarekin koordinazio eta orientazio lana egin behar izaten duela.

Boza *et al.*ek (2000) adierazten dutenez [2. dokumentuan], programen bidezko orientaziorako ezinbestekoa izango da printzipio zehatz batzuk kontuan izatea. Printzipio hauek lagundu egiten dute helburuak betetzen. Honako hauek dira kontuan izan beharreko printzipioak:

- Zuzendaritzak eta irakasleriak orientazioaren konpromisoa sentitu eta hartu behar dute, hots, inplikazioa komeni da.
- Koordinaziorako laguntza teknikoak beharrezkoak da.
- Beharren analisi sistematikoa egiterakoan hezkuntzako komunitate osoa inplikatzeko komeni da.
- Helburuei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak eskuragarri egon behar dira.
- Orientazio-ekintza zuzena ikasleekiko egingo da, baina, baita, zeharka, irakasleekin eta familiekin.
- Ebaluazioa programa gauzatu ahala egiten da, prozesu batetan.
- Ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak argi eta operatiboki definituta egon behar dira.

-Ondorioak bildu egiten dira eta jarraian erabakiak hartzen dira.

Ikastetxe batek argitaratuta dagoen programa bat oso-osorik martxan jarri dezake eta/edo programaren atal batzuk hartu eta programa berri bat ere diseinatu dezake. Programen diseinuan lau garai egon ohi dira. Hauexek dira, hain zuzen ere [2]:

- Hasierako garaia: Egoeraren analisia egiten da. Helburua izaten da, ikastetxearen eta hezkuntza-testuinguruaren errealitatera egokitzea, dimentsio anitzak kontuan hartuz.
- Diseinu garaia: Esku hartzea diseinatzen da.
- Garapen garaia: Sei elementu daude garai honetan:
 - Denboralizazioa
 - Funtzioen zehaztapena eta banaketa
 - Ekintzen jarraipena
 - Baliabideen erabilera
 - Beharrezkoa den azpiegitura
 - Giza-harremanen erabilera
- Ebaluazioaren garaia: Erabakiak hartzen dira, programa bera nola berreraiki, eta/edo agian egokiagoak diren beste programa batzuk erabiltzearen inguruan.

Eredu teknologikoa

Eredu honen sinonimoak eredu telematikoa eta e-orientazioa dira. Eredu honek orientazio prozesuan inplikaturik daudenei autonomia eskaintzen die. Gainera, beste eredu batzuekin uztartuta, orientazioa komunitate zabalera iristen lagundu dezake. Grañeras eta Parrasek diotenez [2], eredu hau 70. hamarkadaren hasieran sortu zen, Estatu Batuetan. Egun, badaude eredu honen erreferenteak Espainia mailan, hala nola, Rodríguez Espinar, Bisquerra eta Pantoja. Eredu honekin erlazionaturiko hainbat galdera egin izan dira urteetan zehar. Esaterako, galdera esanguratsuetako bat izan hauxe izan da: orientatzailea ordenagailu batean bihurtuko al da?

Repetto (1994) adituaren ustez, teknologia berrien laguntzarekin orientazioan esku hartzeko sei esparru daude [2]:

1. Orientazio pertsonala: Esparru honetan prebentzio programak garatu izan dira, hala nola, garapen sozio-emozionalekoak, estresa gutxitzekoak, etab.
2. Gradurako orientazioa: Esparru honetan gradu bakoitzaren egitaraua, gehiago jakiteko formakuntza eta curriculumarekin loturiko alderdiak landu izan dira.

3. Aholku edo orientazio akademikoa: Arlo honetan ikasteko-teknikak irakasten dira eta etorkizuneko ikasketekiko aholkularitza ematen da.
4. Diagnostia: Arlo honetan testak garatu izan dira; baliabide digitalei esker testak zuzendu eta interpretatu dira.
5. Administrazioa: Arlo honetan sartzen dira adibidez ikastetxeko webguneetako ordutegiak, erregistroak, estatistikak, etab. ikusgai jartzea.
6. Orientatzaileen formakuntza: Esparru honetan garatu dira elkarriketen simulatzaileak, *role-playing* bidez gairen batean trebatzea, etab.

Eredu teknologikoa garatu ahal izateko badaude zenbait ekimen gaur egun gizartean. Garrantzitsua da adibidez Konpetentzia Digitalaren Markoa [8]. Gainera, Ministerioak duen *Intef* institutuaren bidez hainbat ikastaro jaso daitezke teknologiararen bidez esku hartzeko [9] Formakuntzaren atala begiratzea komeni da. (<https://intef.es/formacion-y-colaboracion/>).

5.2. Zenbait webgune interesgarri Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (IZE, IBZ) dituzten ikasleentzat

Ikasteko Zailtasun Espezifikoengatik noiz daude Hezkuntza Laguntzarako Berariazko beharrak? [10] dokumentuaren arabera, 42. orrian,

mintzairaren edo hizkuntza idatziaren erabileran inplikaturako oinarritzko prozesu psikologiko batean edo gehiagotan nahasmenduren bat dagoenean. Alterazio horiek anomalia gisa ager daitezke entzutean, hitz egitean, pentsatzean, irakurtzean, idaztean edo kalkulu aritmetikoa egitean. IBZak aldi berean ager daitezke desgaitasun intelektual, sensorial edo motorrekin, nahasmendu emozionalarekin edo kanpoko eraginekin, hala nola arazo soziokulturalekin edo eskolazte desegokiarekin, baina ez dira baldintza edo eragin horien emaitza.

Azken finean, irakurtzeko zailtasunari buruz, idatzizko adierazpenerako zailtasunari buruz edo matematikarako zailtasunari buruz ari gara.

Badira programa eta baliabide teknologiko anitz ingelesez, beste hainbeste gaztelaniaz eta oso gutxi euskaraz. Gaztelaniazko batzuk *Tea argitaletxean*, *Piramide* argitaletxean (Ojos Solares) eta beste argitaletxe batzuetan zehar daude.

Hona hemen irakurketa, idazketa eta matematika zailtasunetan esku hartzeko zenbait webgune/wix interesgarri (ikus 1. taula).

1.taula. Zenbait webgune interesgarri Ikasteko Zailtasun Espezifikoekin esku hartzeko

WEBGUNEAK	ESTEKA
Irakurgunea	https://irakurgune.euskadi.eus/eu/webgune-interesgarriak
International Dyslexia Association Oregon	https://or.dyslexiaida.org/recommended-resources/
Dislegi elkarte	https://dislegi.eus/eu/para-educadores/
Dislebi elkarte	https://dislexiaeuskaadi.com/herramientas-informaticas-para-la-intervencion-y-el-entrenamiento/
<i>Idazten ikasiz wix-a</i>	https://leiree98arana.wixsite.com/website/esku-idazketa
dyscalculia.org	https://www.dyscalculia.org/home

5.3. Erreferentzia bibliografikoak

[1] LLEDÓ, A. (2007). Modelos de orientación educativa: Líneas básicas para la elaboración de un modelo integrado de la práctica orientadora. La importancia de un buen fundamento teórico para el desarrollo de una buena práctica. In A. Lledó. *La orientación educativa desde la práctica* (109-126). Sevilla: Ecoem.

[2] GRAÑERAS, M. ETA PARRAS, A. koord. (2008). Orientación educativa: fundamentos teóricos, modelos institucionales y nuevas perspectivas. Cide: Madril.

[3] ITUARTE, A. (1994). La participación en el modelo clínico de intervención social individualizado y familiar. *Revista de Trabajo Social* 133, 17-34.

[4] MÁIQUEZ, M. L. ETA CAPOTE, C. (2001). Modelos y enfoques en intervención familiar, *Intervención Psicosocial*, 10 (2). Eskuragarri:
<http://www.copmadrid.org/webcopm/publicaciones/social/76937.pdf>

- [5] ROSSO, M.A. ETA LEBL, B. (2006). Terapia humanista existencial fenomenológica. Estudio de caso. Eskuragarri: <http://scielo.org.bo/pdf/rap/v4n1/v4n1a5.pdf>
- [6] AMERICAN SCHOOL COUNSELOR ASSOCIATION (ASCA). [online] <https://www.schoolcounselor.org/About-School-Counseling/ASCA-National-Model-for-School-Counseling-Programs>
- [7] PÉREZ-ESCODA, N. ETA BISQUERRA, R. (2013). *REOP*. 27–42. [Kontsulta: 2022-05-1]. Eskuragarri: <https://www.redalyc.org/pdf/3382/338230795003.pdf>
- [8] INTEF. Marco común de competencia digital docente.[online] [Kontsulta: 2022-05-1]. Eskuragarri: https://aprende.intef.es/sites/default/files/2018-05/2017_1020_Marco-Com%C3%BAn-de-Competencia-Digital-Docente.pdf
- [9] INTEF webgunea. [online] [Kontsulta: 2022-05-1]. Eskuragarri: <https://intef.es/formacion-y-colaboracion/>
- [10] EUSKO JAURLARITZA. Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleekin esku-hartzea (HLBP). [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_de_f/adjuntos/eskola-inklusihoa/Propuestas_inclusivas_ZUZENDUA_e.pdf